

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA 35/02 makrosumarioaren sententzia dela-eta

### JUSTIFIKAZIOA

35/02 makrosumario politikoaren sententzia orain aste gutxi kaleratua izan ostean, hainbat donostiar zigortu eta hainbat elkarte eta taberna konfiskatzeko agindua eman du Madrilgo Auzitegi Nagusiak.

Honen ondotik, aipa sententziak kaltetu dituen norbanako eta elkarteren izenean, udaleko alderdi politikoekin bilerak egin dituzte egunotan, berekiko jarrera agertzeaz gain, Udalbatzan trata dadin osatu duten mozio bat alderdiek bere egin dezaten eskatuz.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak aipa lagunek ekarritako adierazpen instituzionala aurkezten du:

### **Eskubide zibil eta politikoen aldeko DONOSTIARRON ADIERAZPENA**

Euskal Herritarrok urte luzez gatazka eta sufrimendua bizi izan ditugu. Azken urteotan emandako urratsek eta sortutako testuinguru berriak, justizian eta bakean oinarritutako etorkizun baterako aukera zabaltzen dute.

Eragile politiko eta sozialek zein norbanakoek emandako urratsek ekarri gaituzte egoera honetara. Eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko, ezinbestekoa izango da denok erantzukizunez jokatzeko jarraitzea. Bide horretan, lekuz kanpo daude konponbidea oztopatu asmoz jartzen dituzten trabak, prozesu judizial hau eta aurreikusita dauden besteak, hori dira: traba berriak.

Prozesu hauen mehatxupearan segitzen duten zenbait Donostiar daude oraindik, eta zentzu honetan, 35/02 auziko sententziak frustrazioa eragiten du. Oraingo honetan 4 donostiar izan dira zigortuak: Joseba Alvarez, Joseba Permach, Agus Rodriguez eta Juani Lizaso; eta bost lokal konfiskatuak: *Hontza*, *Marruma*, *Herria*, *Haritza* eta *Txalaka* elkarteak.

Eraiki beharreko eszenatoki berrian eskubide zibil eta politiko guztiak

bermatu behar dira. Beraz, militante politikoek kontrako zigorrek zein herriko tabernen itxierak ez dute ez tokirik, ez zentzurik. Nola ulertu Frankismo garaiko gisako zigorrak? Nola ulertu 1936tik hona burutu den ondasun lapurreta handiena egungo testuinguruan?

Sententzia honek gure herriko gatazkaren amaiera garaile eta galtzaile eskemara eraman nahi du. Ozen aldarrikatu nahi dugu, aurrera urratsak, konponbide justua denok garaile izango garen eskeman soilik etorriko dela. Adierazpen hau sinatzen dugunok, sententzia honen aurrean gure kontrakotasun osoa adierazi nahi dugu. Zigortutakoen absoluzioa eta herriko tabernen zigorraren indargabetzea eskatzen dugu.

Hala nola, sententzia honek eragiten dituen kaltetu guztiekiko elkartasuna adierazi nahi dugu. Helburu honen baitan, konpromisoa hartzen dugu gure esku dauden elkartasun zein salaketa ekimenak bultzatzeko.

Donostia, 2015eko uztailaren 10

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko bozeramailea